

GORPUTZ HIZKUNTZAREN BIDEOA I

Komunikazioan, zein da hitzik gabeko Komunikazioaren %?: %93

Gorputzaren eta gorputzaren mugimendua: botere zeinuak

Busch vs Putin

Geroz eta azkarrago ibili, zankada handiagoa eman, indartsuagoa eta boteretsuagoa dirudizu.

Putinek oso indartsua dirudi. Gainera, ibiltzerakoan sorbaldak aurrera eta atzera mugitzen ditu aktiboaren itxura emanaz. Horretaz gain, sexy-a dirudi. Busch-en irudia aldiz, oso tradizionala da, ez ditu sorbaldak mugitzen eta egoera menperatzen duela ikusarazi nahi du.

Arafat Clinton Barak

Kamerei irribarre egiten diete, pozik daudelaren itxura eman nahi dutelako, baina horren atzean, borroka gogor bat dago.

Atetik sartzen den azken pertsona da irabazalea. Horregatik, Clintonek eta Arafat-ek Barak-ei lehenengo sartzeari gonbidatzen diote. Ondoren, Clinton-ek Arafat-eri besotik heltzen dio, eta Arafat apur bat biratu egiten da, ez duela atetik sartu adieraziz. Horregatik, borroka fisiko arin bat gertatzen da bien artean, eta azkenik Clinton sartzen da azkena, Arafat-ei barrurantz bultzatuz.

Borroka honetan ez-hitzezko komunikazioa argi eta garbi ikusten da.

Nixon (posizioa)

Argazkietan ateratzeko posturarik egokiena bi esku estutzean zure eskua dominatzailea izatea da, hau da, zure eskua aurretik ikustea. Horregatik Putinek Nixon-ek baino postura hobea du, dominatzailea izateko alde egokian kokatzen da.

Putin/Blair/Bush

Bush iristen denean, besteengana hurbiltzen da eta argazkiarentzako alde txarrean kokatu delaz ohartzen da. Hartaz, lehenengo Blair-i laguntzen dio pasatzen; eta ondoren Putinengana joaten da, eta Bushek sorbalda Putinen besoaren kontra jartzen du, Putin ez dadin argazkian boteretsuagoa izango balitz bezala gailendu.

Aliatuak: Roosevelt Stalin Churchil

Roosevelt erdian dago, duen kokapenagatik figura garrantzitsuena izanik. Beste biek alderatuz, bera da liderra.

Stalin mugitu egiten da, Roosevelt-i hobeto entzuteko eta bere posizioa apur bat hobetzeko asmoz.

Bestalde, Churchillek Britainia Handiko estatus baxua transmititzen du, ukondoak kanporantz dituelarik eta bere txanoa belauten artean duelarik, bere atal intimoak tapatuz.

Nixon (gezurra)

Nixon zutik dago, eskuak bizkar atzean dituelarik, modu honetan lasai dagoela eta ez duela ezkutatzeko ezer adierazi nahi du. Aldiz, eskumuturra estutzen eta igurtzen ari da. Hau urduri dagoelako baina ezkutatu nahi duelako egiten du. Bere gorputz jarrerak kazetariengandik nola babestu nahi duen erakusten du, atrila heltzen dagoelako. Jarraian, ez dela lotsagabe bat azpimarratzen du eta segituan atzerantz botatzen du gorputza, badakielako gezurra esan duela. Hau egin bezain laster, besoak gurutzatzen ditu.

Gorputz-hizkuntzaren araua: esperotakoa

Arau honen bidez egoera jakin horretarako pertsona jakin batengan normala dena bilatzen da. Hau presiopean daudenean eta ez daudenean egiten dutena erreparatuz formulatzen da.

Ez badakigu pertsona horrentzako zer den normala, orokorrean egoera horretan jendeak egingo zuenarekin alderatzen da.

Norbait arauaz aldentzen bada, zerbait gaizki doanaren seinale izan daiteke.

Ospetsuak:

Britney Spears

Gorrotoa erakusten du eguzkitako betaurreko ilunak jantziz. Hau ezkutatzeko modu bat da.

Lehen munduaren zilborra izatea gustatzen zitzaion, neska alaia eta irekia zen, hau da, oraingoaren kontrakoa.

Paris Hilton

Paris Hilton espetxetik atera zenean, ez zekien jendea bere irteeraren zain zegoela. Bertatik ateratzean, ezin zuen modu jostalari batean atera, momentu horretan jarrera hori ez baitzen

egokia izango. Hemen argi eta garbi ikusten da ospetsuei ez-hitzezko komunikazioari buruzko aholkuak ematen ari direla etengabe.

Irteteko momentuan behatzak gurutzatzen ditu eta modu elegante batean hasten da aurrerantz ibiltzen, neska zintzo baten plantak eginez.

Politikoak:

Bush, Nixon vs Kennedy, Clinton, Obama ...

Bush okertu edo nahasten denean ume bat dirudi, sorbaldak jaso egiten ditu. Bush sinpatikoa eta jostagarria da, ez du presidente batek izan beharko lukeen jarrera hartzen du.

Clinton eta Obamak aldiz, oso ondo dakite hitzak diskurtsoaren parte bat soilik direla, gorputz hizkuntza oso barneratuta dute, badakitelako honek diskurtsoa indartzen duela.

Nixon eta Kennedy-k telebisatutako lehenengo debatean hartu zuten parte, eta ez zekiten gorputz hizkuntzan zentratu behar zirela. Nixonek Kennedy baino segurtasun gutxiago zuela zirudien. Nixonek makilatu gabe agertzea erabaki zuenenez asko nabaritzen zitzaion izerdia. Debatea irratian entzun zutenek argi eta garbi Nixonek irabazten zuela esan zuten; telebistan ikusi zutenek, aldiz, Kennedy ikusten zuten irabazle bezala. Hortik aurrera, gorputz hizkuntza oso garrantzitsua zelaz konturatu ziren.

Hilary Clintoni dagokionez, bere posturarekin bera ez zela presidentea zioen, presidentearen emaztea baizik. Bere gorputz hizkuntza modu interesgarri batean aldatu da, orain jendearengana hurbiltzen da, txaloak bereganatu nahi ditu. Badirudi Hilary-k zerbait egin baino lehen ekintza hura nola burutu pentsatzen duela.

Auto saltzaileak

Jerry etengabe dabil eskuak igurtzen, deseroso dagoelaren seinale. Patxadaz mugitzen da, ondo egingo duelaz autokonbentzitu nahi du bere burua. Erosleei hitz egiterakoan, ez die begietara begiratzen, lurrera edo beherantz begiratzen du. Poliki-poliki bere gorputz hizkuntza hobetzen joan da, baina Corey-rekin konparatzen badugu, ez du zer ikusirik. Corey autosaltzaile ona da, badaki nola jokatu behar duen produktu bat saltzeko, ez du zertan kotxe bat izan behar, askotan saltzaileak emandako inpresioak bultatzen bagaitu erostera. Coreyri naturalki atera zaio egin eta esna duen guztia, oso atsegina izan da emakumeekin.

Bill Clinton

Bill Clinton sinpatikoa eta erakargarria da. Gainera, badaki nola eman behar duen diskurtsoa. Behatzen bidez oso ondo adierazten du gestikulatzen du. Lehenengo diskurtsoa sentitu, ondoren adierazi eta jarraian esan egiten du. Modu honetan esaten ari denan benetan konfiantza diela adierazten du.

Senarrak bere diskurtsoa behatzekin laguntzen du, lo sientes lo muestras y luego lo dices. Justo esan baino lehen behatzekin gestikulatzen du, esaten ari denan benetan konfiatzen duela adieraziz.

Tony Blair

Bi politikoren artean maitasun harremana badago, publikoan adierazi behar dutela esaten zaie. Baina Tony-ren emaztea berari muxu ematera joatean, Tony apartatu egiten da apur bat. Segituan akats bat egin duelaz ohartzen da eta kopeten, eta ilean muxu ematen dio, maitasun gestuak adieraziz.

Angelina Jolie

Oo argi zegoen Angelina Jolie eta Brad Pitt-en artean maitasun harreman bat zegoela. Pelikula baten aurkezpenean, Pitt Angelina-taz gauza politak esaten zegoen bitartean Angelinak lehenengo behera begiratu zuen, ondoren Brad-ri begiratu zioen eta jarraian behera begiratu zuen berriro. Begirada horietan bereganako sentimenduak zituela adierazi zen, eta handik gutxira ofizial egin zuten beraien harremana.

Bill Clinton

Clinton Monicarekin ez zuela amodiorik adierazten saiatu zen telebistan agerraldi bat eginez. Baina bere gorputz jarrerak kontrakoa zioen, ez zuen diskurtso solido bat garatu, izan ere horretarako aurpegia, burua eta keinuak alineatuta egon behar. Clintonek alde batera seinalatzen zuen, baina kontrako aldera zuzentzen zuen begirada. Gainera, burua alde batetik bestera mugitzen zuen, gauza asko ezeztatuz, baina ea emakume horrekin harreman sexualak izan dituen galdetzen diotenean ez du buruarekin ezeztatzen.